

GIOVANNI ARRIGHI

Giovanni Arrighi, *Periferiak* topaketen barnean izan zuen partaidetzan, globalizazioaz jardun zuen. Baltimoreko John Hopkins Universityko soziologia irakasleak aztertu egin zituen globalizazioaren sorrera, hedapena eta barnean daramatzen kontraesanak eragin zituzten arrazoiak.



Globalizazioa, ideologia gisa, 70eko hamarkadan agertu zen Estatu Batuetan, bertan garatu zen hurrena 80ko urteetan zehar, eta pentsamolde nagusi bihurtu zen 90ekoetan. Ideologia honen alderdi nagusia Margareth Thatcherrek lehen ministro gisako agintaldian zehar esan zuen esaldi batean laburtzen da, ondoren eslogan bihurtu zen honetan: *There is no alternative* (TINA). Ideia honek, globalizazioaren garapenaren aurrean beste alternatibarik ez dagoela dioen honek, barnean darama, Giovanni Arrighiren iritziz, kapitala kontrolatzearen guztiok elkarren kontra borrokatzea behar-beharrezkoa den konbentzimendua, nahiz ildo horretatik pertsona eta komunitateen sakrifizioa etorri.

Estatu Batuetako gobernuak globalizazioaren ideologia bere egitea ahalegin bat izan zen, gizarte iparramerikarra jasaten ari zen krisialdi latza arintzearen hain zuzen ere. Vietnamgo porrota, osasun sistemaren kolapsoa, dolarra igarotzen ari zen bolada txarra... faktore hauek guztiok herrialdearen egonkortasuna zalantzan jarri zuen krisialdi orokor bat eragin zuten, eta gainditu beharra zegoen. Bizi izaten ari ziren krisialdi sakonetik irteteko modutzat ezarri zuten globalizazioaren eredua, eta oso aldeko gertatu zitzaion gainera ekonomia iparramerikarrari: 90eko hamarkadan zehar Estatu Batuak izan ziren mundu osoko kapital fluxuaren gune nagusia, hau da, Iparramerika izan zen kapitala zentralizatzen zen tokia. Bankuek eta burtsako agenteek kontrol-gune berriak ezarri zituzten hainbat herrialdetan, dirua erakartzeko xedeaz inolaz ere, eta ekonomiaren bolada on horren bidez ahantzi egin zuten 70eko urteetako krisialdia. Estatu Batuek, halaz, 90eko urteetan zehar bere loraldia bizi izan zuten. "Globalizazio proiektua on gertatu zaie Estatu Batuei, baina gaur egun ahalegina egiten ari dira ekonomia eredu berri bat abian jartzeko, *New American Century* deitua abiarazteko alegia. Bitartean, Estatu Batuetan pertsona askoren galderak honakoak dira: zergatik aldatu, dena ondo baldin badao? Bush zergatik sartzen da abentura arriskutsuetan, Irakeko gerran esate baterako, horretarako arrazoirik ez badago?", azaldu zuen John Hopkins Universityko soziologia irakasleak.

New American Century proiektua dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde gisa agertu zen 1997an, "Amerikaren aitzindaritzza globala" sustatzea zuela xede. Proiektu honetako kideak Alderdi Errepublikarrekoak dira, eta Bush administraziokoak, Donald Rumsfeld, Jeb Bush edo Dick Cheney besteak beste. Hauen ideiak eta lan egiteko modua Estatu Batuetako mugimendu neokontserbadoreari estu-estu lotuta daude. Proiektu honen sorreraren inguruan eztabaida ugari izan da; analista batzuen iritziz, *New American Century*ren helburu behinena Estatu Batuek mundu mailan duten nagusitasun militar eta ekonomikoa sendotzea da, lurra, espazioa eta ziberespazioa bera ere hartuz kontrolpean. Analista hauek diotenaren arabera, Iraken okupazioa izugarri pauso garrantzitsua da helburu hori lortzeko bidean. Globalizazio proiektuak lagunduta munduko harreman ekonomikoen mapan gertatu diren aldaketek oso-oso urduri jarri dituzte ekonomia iparramerikarraren arduradunak. Izan ere, globalizazioak aldaketa handiak eragin ditu. 70eko hamarkadaz geroztik, orduan abiatu baitzen proiektu hau, *hirugarren munduko* herrialdeek industrializazio prozesu garrantzitsua izan dute, eta horrenbestez ekonomi gune benetan garrantzitsua dira gaur egun. Halaz, egun planetaren Hegoaldeko herrialdeak Iparrekoak baino %70 industrializatuago daude. "Hala eta guztiz ere, *IncomeGAP* ez da aldatu, 70eko hamarkadan zituen maila berberetan segitzen du, eta lagundu egin du Hegoaldeko herrialdeen arteko aldeak areago daitezen", esan zuen Giovanni Arrighik. Gainera, Asia ekialdeko herrialdeetako ekonomia igarotzen ari den bolada onak –bolada honen barnean sartuta ditugu, esate baterako, Japon eta Txinako ekonomia, eta azken aldi honetan baita Taiwan, Hego Korea, Hong Kong eta Singapurrekoa ere- oso urduritasun handia eragin du Estatu Batuetan; izan ere, gozatu duten botere egoera hori betiko ez dela konturatu dira. *New American Century* proiektua Estatu Batuetako arduradunek errealitate berri bat aurkitu duten unean sortu da; errealitate berri hori Asiako herrialdeek munduko ekonomiaren merkatuetan duten toki gero eta handiagoa da. "Estatu Batuak ezin dira horiekin lehian aritu egungo eredu ekonomikoan, famili ekonomiari oso loturik egoteaz gain funtsean alderdi militarrek ematen baitio sostengua. Estatu Batuek orain arte bizi izan duten *belle époque* hori ezin da mantendu", Giovanni Arrighiren iritziz.

Globalizazio proiektua baztertzek aukeraz beteriko egoera berri bat sortu du, Giovanni Arrighiren ustetan. Espazio bat sortu da Txinarentzat, eta honek aukera izango du bere potentzial ekonomiko guztia garatzeko eta munduko ekonomian toki nagusietako bat hartzeko, baina, era berean, Hegoaldeko herrialdeak elkartu daitezten eta mundu mailako merkatuan elkarrekin sar daitezten ere zabaldu da atea. Orain arteko harremanak eraldaketa sakoneko prozesu batean sartu dira, Kolonizazioak ezarri zuen ereduak galdu egin du balioa, eta lankidetzarako sare berriak ari dira sortzen. "Egoera berri honetan ezin ditugu ahortzi hirugarren munduko herrialdeetan bizi diren gizarte desberdintasun itzelak, Iparreko irlatxo batzuk dauden hegoaldeko ozeanoak baitira; eutsi egin behar, ordea, itxaropenari. Txina, honen garapen ereduaren oinarrian gizarte arloko aurrerapenak daude, adibide bat izan daiteke Hegoaldeko herrialdeak mundu mailako merkatuan sartzeko. Hau sartzen den moduak finkatuko ditu etorkizunerako oinarriak", esan zuen amaitzeko.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.